

Boluntario adituen sarea

Horixe da Aubixa Fundazioaren izateko arrazoa: gizarte zibilean dagoen potentzial espezializatua aktibatzea, hainbat esparrutan esperientzia handia duten profesional eta pertsona horiek nahi ditugu, euren garapenerako beste espazio batzuk oraindik aurkitu ez dituzten edo bilatu ere egin ez dituzten pertsonak, gehien dakiten eta hobekien jarduten duten horiek garatuz. Boluntariotza ez da ordutan, ekintza heroikotan edota norberaren etxearen eta jardun solidarioaren onuradunen etxearen arteko kilometro kopuruan neurtu behar den zerbait. Boluntariotza, lehenik eta behin, efikazia eraginkorraren terminotan neurtu behar da. Gainezka egiten gaituzten arazoan aurrean baliabide materialei eta giza baliabideei dagokienez mugatuta dagoen mundu batean bizi garelako. Alzheimerra duen pertsona baten zaintzaileak zeregin goraipagarria betetzen du, maite duten gizaki horri gutxieneko ongizate-maila bat eskaintzeko ezinbestekoa delako, gaixoa gero eta ezezagunagoa egiten zaion arren ez duelako ezagutu ere egiten. Baina zaintzaile horrek, era berean, arreta, errekonozimendua eta prestakuntza behar ditu. Horregatik ari gara animatzen medikuak, erizainak, gizarte-langileak, arkitektoak, psikologoak, abokatuak, baita idazleak eta komunikatzaileak ere, boluntario adituen sare solidario bat zabaltzeko zereginean parte har dezaten.

Zahartzeari eta Alzheimerri edo beste dementzia batzuei buruzko ikerketa sozialak galdera eta erronken barne hartu ezinezko esparrua eskaintzen du, eta horretarako beharrezkoa da irakasleen, hirugarren sektoreko profesionalen, zientzia medikoaren, soziologiaren, hirigintza eta arkitekturaren, teknologia berrien eta psikologiaren parte-hartzea, elkarrekin jardun behar dutelako arazoei modu integralean eiteko, konponbideak bilatuz etengabe. Eskubideez eta Zuzenbideaz, Alzheimerren aurka partekatu beharreko gizarte- eta osasun-estrategia bat gauzatzeaz, ingurune fisiko eta komunikazio-ingurune inklusiboak diseinatzeaz, prestakuntza presentzialaz eta e-learning deitutakoaz, datu-banku fidagarri bati buruz, batzen joango diren ekimenen kopuru amaiezinaz ari gara hitz egiten.

Horretarako boluntario adituen lankidetzak eskatzen eta lortzen ari gara, praktikan ikusten dutenak administrazio publikoan edo enpresan egiten duten zeregin profesionalak euren astialdiaren hainbat orduz jarraipena izan dezakeela zeregin solidario eta altruista bat egiteko. Egitura hierarkizatuen barnean eta irizpide zentrali lotuta dagoen beren soldatapeko lana egiterakoan lortzen ez dutena lortu ahal izateko ordu eta zeregin horiek. Zein profesionalak ez du ideia bat edo proiektu bat, bere lantokian edo soldata ordaintzen dion erakundeetan planteatu ere egiten ez duena, alferrik izango litzatekeelako? Aubixa Fundazioa, hain zuzen ere, hori guztia frustrazioan gal ez dadin sortu da.

Adituak ez dio aditu izateari utzi behar lagun hurkoari laguntzeko. Baina gizarte antolatuari dagokio, kasu honetan Aubixa Fundazioari, gizarteak bere jendeak duen onena aprobetxatu ahal izateko aukerak eta beharrezko bitartekoak eskaini beha ditu. Eta hori hala izan arren boluntarioak ez dira zeregin jakin batean sailkatuta geratuko, zeregin jakin bat bete behar duten kideak dituen erlauntz baten moduko zereginetan. Aubixa Fundazioak dagoeneko abian dituen proiektuei begiratu besterik ez zaie egin behar oinarritzat duten jakintza- eta esperientzia-trukeaz ohartzeko, baita sarean egindako lanak eskaintzen dituen aukerez eta boluntario aditu bakoitzak biltzen duen jakintzaren ekarpen libre eta zeharkakoaz ohartzeko.